

5. Eusko-ikaskuntzak esku artean dakaŕen *Mapa*, naiko uts dariona Euskaltzaindiak deritza. Alike-ta utsune oyek bete, ta lan orixe atalka ta pitinka antolatu arte, Euskaltzaindiak ezin ezer urgatzi dezake.

Altube Euskaltzain jaunak oritxo egoki bat ageŕtu du, Euskal-erian, euskal-izenak bildu, nolaz esan, nolaz aldatu ditezken jakiteko. Auxe da oritxo oŕen era:

Pueblo	—	Nombre y apellido del informante	—	Español	—	Definición	—
				Diccionario		} uso euskerico puro } uso eusko-erderico	

Euskaltzaindiak aitzakotzat artu du.

Ta berandu izan-da, batzaldia jaiki da, oizko otoitzez.

Donostia 'n Gipuzkoa 'ko Aldundi - Jauregian 1921 'ko Garagaŕila 'ren 28 'an.

Batzaŕaldira datoz euskaltzain abek: Azkue, maipuru, Urkixo, Kanpion, Lakonbe, Landeŕetxe, Altube, Intza, Olabide, Eguskitza, Lhande, Intzagarai; urgazlerik batez.

1. Oizko otoitz ostean, kisa-aldatza artu da arlotzat, urte bitik urte bira, Euskaltzaindiak, arauetan daukanez, kisak aldatu ta beŕitu beaŕ ditu. Oraintxe garai dagokio, ta Maipuruak orixe dager. Eleizalde euskaltzain jaunak, gaxo dala-ta, ezin etoŕi dala gastingatu du; baŕnan iru Kisarako, Buru, Zadoflari, ta

Gutuntzaintzarako, bere autarkiak bidali ditu. Lenbiko txandaz Euskaltzain-nagusigoa autarquitara jo da, ta onela zatituak etoñi dira:

Azkue jaunari	9
Kanpion jaunari	1
Utzik	2

Urëna euskal-iker-salaren burua aukeratu bear zan, ta autarkiak onela etoñi dira:

Kanpion jaunari	10
Utzik »	1

Yago-salaren buruarena urën, ta autarkiak:

Eleizalde jaunari	11
-------------------	----

Zadoñlaritzarako autarkiak onela ziran:

Intzagarai	9
Olabide jaunari	1
Altube jaunari	1
Utzik	1

Diruzaitzarako:

Altube jaunari	9
Urkixo jaunari	1
Utzik	1

Gutuntzaitzarako:

Lakonbe jaunari	9
Urkixo jaunari	2
Utzik	1

Beaz, bi urtetarako Euskaltzaindiaren kizatza auxe izango da:

Azkue: Buru
Kanpion: Iker-sail-buru
Eleizalde: Yago-sail-buru
Intzagarai: Zadoñlari
Altube; Diruzai
Lakonbe: Gutuntzain

2. Altube jaunak, euskal-batasunaz, Euskalerian auxe zabaldu bear dala, diyo:

«Orain arte euskal-batasunari dagokion gayez euskaltzaindiratu diran idazki-lanak argitaratu ta ikasiz gañera, batasunezko ebatzi astun ori artu bañon len, Euskaleri osoan, Euskerea beronen agerkeraguztietan zelan bizi dan, ondo eta zeatz ezagutzea gauza bear-bearekoa dabela Euskaltzaindiak erabaki du; eta ortarako idatz-itunketa eta beste bide egoki batzuk artzea ere bai.»

Euskaltzaindiak abo batez bayetz ta bayetz diyo.

3. Euskaltzaindiak argitaratzen duen «Euskera» beste izpaingiyaz trukatu bear da, ta batez ere euskeraz zer bait aldioroz argitaratzen dutenaz. — Bereziz aipatzen dira: *Baskonia-Buenos-Aires*—*Revista de Filología Española - Almagro 26-Madrid*.

4. Durango-ko Euskal-Egunetarako Zuberoako dantzari txikiak ekartzea erabaki da. Ara Aita Lhandek dakaren abekiko domua:

6 dantzari ta txistulari 1

Dantza egunka. . .	50 franko - (bakoitzaka)
Joan-etoñi egunka .	25 franko (id.)
<i>Pasaporta ta visa.</i>	(ez daki)
Bide-txañtela. . . .	(ez daki)
Durangoko egoitza	(ez daki)
Jantziyen aloketa .	20 franko - (bakoitzaka ?)

5. Lendik erabaki zan bezela, Muñoa-ta' Migel jaunaren Ikastetxeko sariketarako zerbaiten sorozpide eman bea' da: zenbateraño saria eman litekean, Intzagarai euskatzañari eskubide egotzi zayo.

6 Napañoako Aldundi beñiari sorozpidea eskatu bea' zayo; auxe eskatzeko, Kanpion jaunak idazki bat egin bezayo. Berdingo eskaria Donostiko Udalari.

7. Gazteizko Eliz-bañutirako Kristau-ikasbidearen argitaratza, Euskaltzaindiari mami-mamiko gauza zayo. Zerbait jakiteko, orixe artezten dabiltzanengana jo bea' da.

8. Kristau-dotñin auxe Iruñako Gotzai jaunari eskeñi, bere arduraz napañeraz ipiñi-ta, bere bañutiyen zabaldu dezan.

9. Donostiko *El Pueblo Vasco*, *La Voz de Guipúzcoa* ta *La Constancia*-ri eguneroko euskal-idazkiñoak eskeñi, ta Iruñako *Pensamiento Navarro* ta *Radika*'ri bidali.

Ta beste arlorik ez da, batzañaldia jaiki zan, oizko otoitzaz.